

KONTAKIZUN-LEHIAKETA

OINARRIAK

1.- Nahi duen orok parte har dezake, adin zein herritartasunari erreparatu gabe.

2.- Hizkuntza (gaztelania edo euskara).

3.- 6 sari egongo dira (3 sari gaztelaniaz eta 3 sari euskaraz):

- * 1. saria: Lehen Hezkuntza (4, 5 eta 6. mailak) 50 €.
- * 1. saria: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) 80 €.
- * 1. saria: Helduak. 120 €.

4.- Egile bakoitzak lan bakarra entregatu ahalko du; originala izango da eta aurretik saritu gabea (ez du marrazkirik izango, ezta argazkirik ere). **ITXITAKO BI GUTUN-AZAL (A eta B) atxikiko dira eta BIEN KANPOALDEAN KONTAKIZUNAREN IZENBURUA, HIZKUNTZA ETA zein KATEGORIATAN** aurkezten den idatzi beharko da; **BARNEALDEAN** honako hauek sartuko dira:

- **A GUTUN-AZALA: KONTAKUZUNA, IZENBURU ETA GUZTI.**

- **B GUTUN-AZALA: DATU PERTSONALAK.** Egilearen NANaren kopia edo zenbakia, izena, bi abizen, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono-zenbakia, kontakizunaren izenburua eta kategoria, eta, hala badagokio, egilearen literatura-ibilbidea.

5.- Kontakizunen gutxieneko luzera:

- a) 1 orri (*Lehen Hezkuntza*).
- b) 2 orri (*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*).
- c) 4 orri gutxienez eta 8 orri gehienez (*Helduak*).

DERRIGORREZKOA

- **PAPERA:** DIN A-4 tamaina.

- **ORRIA:** orrialde osoa. Orrialdeak zenbakitu egin beharko dira.

- **KONTAKIZUNAREN IZENBURUA:** aparteko orri batean, ez da sartuko kontakizunean.

- **LETRA:** Times New Roman mota eta 12 tamaina (gehienez 1,5).

- **KATEGORIA:** Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta helduak.

- **HIZKUNTZA:** gaztelania edo euskara.

6.- Lana ebaluatzeko gutxieneko baldintzak: epaimahaiak ez ditu ebaluatuko oinarrietako 1-5 ataletan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten lanak.

7.- Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri guztiak onartzen direla, baita epaimahaiaren erabakiak eta epaia ere. Epaimahaiak hartutako erabakia apelaezina izango da, eta epaimahaiak saria eman gabe utzi ahalko du.

8.- Udalak saritutako lanen egile-eskubideak izango ditu, baita erreprodukzio- eta erabilera-eskubideak ere.

9.- Epaimahaia hezkuntzaren eta kulturaren esparruetako pertsonak osatuko dute.

10.- Saritu ez diren lanak epaimahaiak epaia eman eta 15 lanegun pasatutakoan bueltatuko dira.

11.- Lanak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 2an amaituko da, 14:00etan.

Dokumentazioa honako modu hauetan aurkeztu daiteke:

1) *Udal-bulegoen ordutegian urrez aurre entregatuta.*

2) *Postaz (Kontakizun-lehiaketa, kontakizunaren izenburua eta dagokion kategoria), helbide honetara bidalita:*

Oyón-Oiongo Udala, Plaza Nagusia 5 – 01320 Oyón-Oion, Araba

3) *Webguneko helbide elektronikora bidalita (info@ayuntamientodeoyon.com). 2 pdf bidaliko dira:*

- A gutun-azala.pdf: Kontakizuna, izenburu eta guzti.

- B gutun-azala.pdf: Datu pertsonalak.

Edonola ere, dokumentazioak udal-bulegoetan egon beharko du 2022ko abenduaren 2an. Parte-hartzaileen ardura izango da dokumentazioa oinarrietan zehaztutako epearen barruan entregatzea. Jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordu horretatik kanpo jasotzen den dokumentazioa ez da onartuko.

12.- Sarien irabazleei jakinaraziko zaie sari-banaketa noiz egingo den.